



## **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO BERRIKUNTZARAKO ETA JAKINTZAREN GIZARTERAKO DEPARTAMENTUAK “EKINTZAILETZA BERRITZAILEA GIPUZKOAN” GIDAREN LEHEN ZENBAKIA AURKEZTU DU.**

---

### **“ Ekintzailtza berritzailea Gipuzkoan” [html](#) [pdf](#) [ppt](#)**

Argitalpen hori “html” nahiz “pdf” bertsioan eskura daiteke web orri honetan bertan, eta Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuaren asmoa da, argitalpen horren bitartez, gida ekintzaile bat eskaintzea, ekintzailtza-prozesu horri aurre egiten ari diren pertsonen bizipenetan oinarrituta, euren arrakasta eta porroten, zalantza eta kezken berri izanda. Lan honen lehen zenbakian enpresak sortzeko prozesuan konprometituta dauden hamabi pertsona gipuzkoarri egin zaie elkarrizketa, eta azterketa kualitatibo bat egin da, gizon nahiz emakume ekintzaile horien kontakizunetan islatzen diren ideietan, sentimenetan, bizipenetan eta hausnarketetan oinarrituta.

### **KOSMODISEA EGUN HANDIA.**

---

Datorren apirilaren 26an, goizeko 10:30ean, Kosmodiasearen amaiera-ekitaldia egingo da Donostiako Kursaal Biltzar Jauregian. Ekitaldi horren helburua da, ekimen honetan parte hartutako pertsona eta erakunde guztiei (batez ere ikasleei, irakasleei eta heziketa-zentroei) azken hilabeteetan egindako lan bikaina aintzat hartzea. Horrela bada, Kosmodiasearen amaiera-ekitaldia ospakizun bat izatea nahi dugu, kultura ekintzailearen osagai diren balio eta jarreretan oinarrituta.

### **APIRILAK 27, PERTSONA EKINTZAILEAREN EGUNA.**

---

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Sailarekin batera, pertsona ekintzailearen omeneko jardunaldi bat prestatu du Gipuzkoako hezkuntza-esparruan datorren apirilaren 27rako.

Jardunaldi hori abian jartzearekin pertsona ekintzaileek berezkoak dituzten balioak hurbildu nahi dira hezkuntza-sistemara, esate baterako, autoestimua, sormena, diziplina, erantzukizuna, arriskuak hartzeko gaitasuna, talde-lana, porrota onartzeko gaitasuna etab. Hau da, ikasleak, irakasleak eta familia sentsibilizatu nahi dira ekitearekin eta berritzearekin lotuta dauden gaitasun horien bitartez, betiere espermentazioa (emaitza onekin nahiz akatsekin) berrikuntzarako ikasbide dela ohartuz. Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentua arduratuko da Gipuzkoako heziketa-zentro guztiei lan ekintzaileekin lotutako informazio-material zabala eskaintzeaz eta, ondoren, zentro bakoitzak egoki irizten duen moduan erabiliko du.